


Euskal AEko Merkataritza sektoreko salmentak % 3,0 jaitsi dira 2023ko bigarren hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, jaitsiera % 1,5ekoa izan da

Eustaten datuen arabera, Merkataritza sektorea, zeinak *Handizkako merkataritza*, *Txikizkako merkataritza* eta *Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa* barne hartzen dituen, % 3,0 jaitsi da urtetik urterako balioetan 2023ko bigarren hiruhilekoan, prezio konstanteetan eta egutegiaren eraginak kendu ondoren.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, dagozkion urtaro-eraginak kenduta, salmentak % 1,5 jaitsi dira 2023ko bigarren hiruhilekoan.

Merkataritzako indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Merkataritzaren barruan, salmenten urtetik urterako bilakaera positiboa izan da, bai *Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketaren* sektorean (% 3,0ko hazkundea), bai *Txikizkako merkataritzaren* sektorean (iazko bigarren hiruhilekoan baino % 1,1 gehiago). *Handizkako merkataritzaren* sektorean, ordea, salmentak 2022ko bigarren hiruhilekoan baino % 6,9 txikiagoak izan dira, prezio konstanteetan eta egutegiaren eraginak kendu ondoren.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, dagozkion urtaro-eraginak kenduta, atzerakada gertatu da bai *Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa*, bai *Handizkako merkataritza*, hiruhilekotik hiruhilekora % 2,0ko eta % 1,9 jaitsi baitira, hurrenez hurren. *Txikizkako merkataritza*ren azpisektorean, ordea, salmentak % 0,5 igo dira aurreko hiruhilekoaren aldean.

Euskal AEko zerbitzuen koiuntura-indizea. Merkataritza. Behin-behineko datuak. 2023/II

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
INDIZE OROKORRA	-3,0	-1,5	-1,4
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	3,0	-2,0	2,6
Handizkako merkataritza	-6,9	-1,9	-4,1
Txikizkako merkataritza	1,1	0,5	1,5
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba/Álava	-5,3	-3,3	-1,6
Bizkaia	-4,3	-2,2	-1,9
Gipuzkoa	0,5	0,6	-0,5
EMPLEGUA	1,4	0,3	1,2

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

A(t) / A(t-4) Urteen arteko aldakuntza urte honetan zehar. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

Data 2023ko Irailaren 13a

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Lurralde historikoak aztertuta, *Merkataritza* sektore osoan, Araban eta Bizkaian, urtetik urterako salmentak % 5,3 eta % 4,3 jaitsi dira, hurrenez hurren, prezio konstanteetan. Gipuzkoan, aldiz, salmentak % 0,5 igo dira.

2023ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, salmentak % 3,3 jaitsi dira Araban, eta % 2,2 Bizkaian. Gipuzkoan, aldiz, salmentak % 0,6 igo dira hiruhilekotik hiruhilekora.

Euskal AEko *Merkataritza* sektoreko landunen indizea % 1,4 igo da 2023ko bigarren hiruhilekoan, 2022ko bigarren hiruhilekoaren aldean. Urteko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, % 0,3 hazi da.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu diguten establezimendu guztiei. Haiei esker, hiruhileko honetako indizea **% 95,0ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62